| |
|---|
| **2008KO EKAINAREN 10AN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO<br>*BILKURAREN AKTA*** |
| ***ACTA DE LA SESION PLENARIA EXTRAORDINARIA<br>CELEBRADA EL DIA 10 DE JUNIO DE 2008*** |
| ***ALKATE-UDALBURUA<br>ALCALDE-PRESIDENTE***<br><br>D. David Latxaga Ugartemendia jn. |
| ***ZINEGOTZIAK / CONCEJALES ASISTENTES**:*<br>Dª Amagoya Madariaga Olea and.<br>D. Alberto Gallastegi Abendibar jn.<br>D. Anartz Gandiaga Zarazua jn.<br>Dª Sara Chamizo Diez and.<br>D. Andoni Agirrebeitia Abendibar jn.<br>D. Iñigo Artetxe Arrieta jn.<br>D. Iñigo BilbaoRekagorri jn.<br>Dª Karmele Aurtenetxe Elorriaga<br>D. Antonio Castellet Conesa jn.<br>D. Alberto Borobia Conde jn.<br>Dª Alicia Eugenia Hernandez Cid and.<br>Dª Belen Saralegui Valero and.<br>D. Vicente Julian Silva Gonzalez jn.<br>D. Miguel Rodriguez González jn.<br>D. Javier Atxurra Gojenola jn.<br>Dª Beatriz Calvo Fernández and. |
| ***IDAZKARI NAGUSIA<br>LA SECRETARIO GENERAL***<br>Dª Teresa Virto Larruscain and. |
| ***LA INTERVENTOR DE FONDOS MUNICIPALES<br>UDAL FONDOEN KONTUHARTZAILEA***<br>Dª Cristina Bilbao Salterain and. |
| ***LA TECNICO DE LA ADMINISTRACION GENERAL<br>ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA***<br>Dª Jasone Ibarra Unzueta and. |

Amorebieta-Etxanoko Udalaren Batzar Aretoan, bi mila eta zortziko ekainaren hamarrean, ordu bi eta erdietan, David Latxaga Ugartemendia alkate jaunaren agindupean, goiburuan aipatutako zinegotzi jaun/andreak bildu ziren, eta Teresa Virto Larruskain Idazkari Nagusi andrea, ohiz kanpoko Osoko Bilkura egiteko, aldez aurretik deitutakoa. Cristina Bilbao Salterain andrea, Udal Fondoen Esku-hartzailea ere bertan zegoen.

Batzarrari hasiera emanda, alkatearen aginduz, Udal Batzordearen iritzipean jarri ziren gai-ordeneko gaiak, eta honako erabakiak hartu zituzten:

**1.- DEIALDIAREN PREMIATA-SUNA BERRESTEA.**

Alkate-udalburuak deialdia egiteko arrazoiak azaldu dizkio udalbatzari.

Jarraian, gaia eztabaidatzeari ekin diote:

**Silva jn., EB-ARALAR**

Printzipioz, osoko bilkuraren premiarekin ados gaude. Baina argi utzi nahi dugu ez zaigula importa bost minutu itxarotea, edo hamabost, beharrezkoa bada, Zinegotziaren bat falta bada. Gertatzen dena zera da, gu falta garenean, telefonoz deitzea eskertuko genukeela. Adeitasunagatik, besterik ez.

**Alkate jn.:**

Nik nahiko nukeena, Vicente, zera da: beti puntu ateratzen ez ibiltzea.

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano a las catorce horas y treinta minutos del día diez de Junio de dos mil ocho, bajo la presidencia del Sr. Alcalde-Presidente nte D. David Latxaga Ugartemendia se reunieron los Sres/Sras. Concejales que al comienzo del acta se expresan, con asistencia de la suscrita Secretario General, Dª Teresa Virto Larruskain, con el fin de celebrar sesión Plenaria Extraordinaria, previa convocatoria cursada al efecto, estando presente también la Interventor de Fondos Municipales, Dª Cristina Bilbao Salterain.

Abierta la sesión de orden del Sr. Alcalde, se somete a la consideración de la Corporación los asuntos comprendidos en el Orden del Día de la presente sesión sobre los cuales se adoptaron los acuerdos siguientes:

**1.- RATIFICACIÓN DE LA URGENCIA DE LA CONVOCATORIA.**

El Sr. Alcalde-Presidente expone a la Corporación las razones que habían concurrido para efectuar la convocatoria.

Seguidamente se procedió a debatir el asunto.

**Sr. Silva de EB-ARALAR**

*En principio, estamos de acuerdo con la urgencia del pleno. Lo que sí queríamos hacer constar ahora mismo. No nos importa hacer esperar cinco minutos si falta algún Concejal, incluso quince. Lo que pasa es que cuando faltemos nosotros también nos gustaría que se nos llamaran por teléfono. Simplemente por deferencia.*

**Sr. Alcalde:**

*Lo que me gustaría también,*

Ez dakit polemika gustatzen zaigun.

Kortesiazko bost minutu izan dira.

*Vicente, no estemos siempre buscando cinco patas al gato. No sé si nos gusta polemizar.*

*Han sido cinco minutos de cortesía.*

**2.- UDALETXEA ZAHARBERRITU ETA HANDITZEKO PROIEK-TUKO OBRAK PROZEDURA MURRIZTUAREN BITARTEZ ADJUDI-KATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA.**

**2.- PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS-PARTICULARES PARA LA ADJUDICACIÓN DE LAS OBRAS CORRESPONDIENTES DEL PROYECTO DE REFORMA Y AMPLIACIÓN DE LA CASA CONSISTORIAL POR PROCE-DIMIENTO RESTRINGIDO.**

2008ko maiatzaren 9an Udalbatzak Osoko Bilkura ez ohikoa egin zuen. Bertan adostu zuten klausula administratibo berezien Plegua onestea, Udaletxearen erreforma eta handitze lanen Proiektuari dagozkien obrak prozedura ireki bidez esleitzeko. Lizitazio-deialdiaren iragarkia maiatzaren 21eko BAOean argitaratu zen, 96. zk.

RESULTANDO que la Corporación en Sesión Plenaria Extraordinaria celebrada el día 9 de Mayo de 2.008 acordó aprobar el Pliego de cláusulas administrativas particulares para la adjudicación de las obras correspondientes al Proyecto de reforma y ampliación de la Casa Consistorial por procedimiento abierto. El anuncio de convocatoria de licitación fue publicado en el B.O.B. nº 96, de 21 de Mayo.

Pablo Gil Roa jaunak idazki bat aurkeztu du ASCOBI-BIEBA, Bizkaiko Etxegile Sustatzaileen Bazkunaren izenean. Idazki hori klausula administratibo berezien Pleguari buruzkoa da, Udaletxearen erreforma eta handitze lanen Proiektuari dagozkien obrak esleitzeko plegua, hain zuzen. Hau adierazten da idazkian:

RESULTANDO que por D. Pablo Gil Roa, en representación de la Asociación de Constructores y Promotores de Bizkaia-Bizkaiko Etxegile Sustatzaileen Bazkuna ASCOBI-BIEBA se presenta escrito relativo al pliego de cláusulas administrativas particulares para la adjudicación de las obras correspondientes al proyecto de reforma y ampliación de la casa consistorial, en el que manifiesta que

“Plegu horretan, eta proposamenen aurkezpenaren atalean, d) atala, kontratistari esaten zaio bere C Taldeko, 3 azpitaldeko, e) kategoriako sailkapena egiaztatu behar duela. Jarraian, adierazi da eskatutako sailkapenaz gain, beharrezkoa izango dela eraikitzaileak g)

“En dicho pliego y dentro del capítulo correspondiente a la presentación de proposiciones, apartado d) se exige del contratista que acredite su clasificación en el Grupo C, subgrupo 3, categoría e), añadiéndose a continuación que además de la clasificación exigida, será necesario que el edificador acredite la solven-

atalean eskatzen den kaudimen teknikoa egiaztatzea.

G) atalean eskatzen da enpresek egiaztagiri bat aurkeztea, industriarako ez diren gutxienez bost eraikinetan obrak egin dituztela frogatzeko, bi milioitik gorako baliokoak (BEZ kanpo), azken bost urteetan. Gutxienez, bi eraikinetako hiruk bulego, administrazio edo ikastetxe erabilera edukiko dute. Ziurtagiriak, kokapenaz gain, adierazi beharko du obren sustatzailea ados dagoela obrak egiteko modu eta kalitatearekin. Lizitazio honetan ez dira onartuko obrak atal honetan adostu bezala egingo dituztela ziurtatzen ez duten enpresak".

Horren inguruan jaulkitako txostenak kontuan hartu dira.

Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legearen 51. artikuluan eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Kontratazio Arau orokorrak.

Udalbatzaren osoko bilkuraren eskumena da gai hori ebaztea, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2.007 Legearen bigarren xedapen gehigarria.

Obra eta Zerbitzuen Informazio Batzordeak emandako Irizpena kontuan hartu da.

Ondoren, gaia eztabaidatu da:

**Calvo and., PP:**

Azalpena zuzena izan zen, PPk uste du Kontratu Publikoen lege berriak zera ezarri duela: prozedura irekirako enpresen sailkapena eskatuko dela. Sail-

cia técnica en la forma requerida en el apartado g).

Y este apartado g) requiere de las empresas un certificado acreditativo de haber realizado al menos cinco obras de construcción de edificios de uso distinto al industrial de cuantía superior a los dos millones de euros (IVA no incluido) en los último cinco años. Al menos tres de los dos edificios deberán tener como uso principal el de oficina, administrativo, sanitario o docente. El certificado deberá reflejar, además de la localización, la conformidad del promotor de las obras con la forma y calidad de la ejecución de las mismas. No se admitirán a esta licitación las empresas que no acrediten la realización de dichas obras en la forma prevista en este apartado".

CONSIDERANDO los informes emitidos al efecto.

CONSIDERANDO lo dispuesto en el Art. 51 de la Ley 30/2.007, de Contratos del Sector Público y Art. 11 del Real Decreto 1098/2.001, de 12 de Octubre, Reglamento General de Contratación.

CONSIDERANDO que es competencia del Pleno de la Corporación la resolución del presente asunto de conformidad con lo establecido en la Disposición Adicional segunda de la Ley 30/2.007, de 30 de Octubre, de Contratos del Sector Público.

CONSIDERANDO el Dictamen emitido por la Comisión Informativa de Obras y Servicios.

Seguidamente se procedio a debatir el asunto:

**Sra. Calvo del PP:**

*La explicación fué la correcta, el PP cree que la nueva Ley de Contratos públicos establece que para el procedimiento abierto se exija la clasificación*

kapen hori Kontratazioko Kontsulta-batzordearen Administrazio Nagusiak ematen du. Sailkapen horrek edozein enpresaren kaudimen tekniko, ekonomiko eta finantzarioa erakusten digu. Uste dugu prozedura irekian aukera gehiago daudela, enpresa gehiago aurkeztu ahal direlako, eta gero guzti horien artean lehiaketa egokia egin dezakegu. Gainera, herriko obrarik garrantzitsuenetako bati buruz ari gara.

*de las empresas, clasificación que es dada por la Administración Central por la Junta Consultiva de Contratación. Esta clasificación nos demuestra la solvencia técnica y económico financiera de cualquier empresa que la posea. Creemos que el procedimiento abierto se tiene más posibilidades de elección porque se pueden presentar un mayor número de empresas y después entre todas ellas podemos hacer el concurso pertinente, cuando encima estamos hablando de una de las obras más importantes de este municipio.*

Uste dugu prozedura itxia, bere izenak adierazten duen bezala, aurkeztu daitekeen enpresa kopurua murrizten duela eta prozedura irekia baino seguruagoa dela, obrarekin zer gertatuko den jakin ezin dugun arren... beraz, abstenitu egingo gara.

*Consideramos que el procedimiento restringido como su nombre indica restringe y limita el número de empresas que se pueden presentar, es más seguro el procedimiento abierto, creemos nosotros, a pesar de no tener la varita mágica para ver que es lo que puede pasar con la ejecución de una obra, por lo tanto nos vamos a abstener.*

**Castellet jn., PSE-EE:**

Gure Zinegotzia Batzordean abstenitu egin zela esan behar dut, ez genuelako horren gainean hitz egin. Gure aldetik ez dago arazorik eta aldeko botoa emango dugu.

**Sr. Castellet del PSE-EE:**

*Explicar que en la Comisión nuestro Concejal se abstuvo porque no habíamos visto, ni discutido ni hablado. No hay ningún problema por nuestra parte y vamos a votar favorablemente.*

Udalbatzak, ondoko jaun-andreen aldeko hamasei botoko gehiengoaz, hots, EAko Atxurra, EB-B-ARALAReko Silva eta Rodriguez, PSE-EEeko Castellet, Borobia, Hernandez eta Saralegi, EAJ-PNVko Artetxe, Bilbao, Aurtenetxe, Gallastegi, Agirrebeitia, Chamizo, Gandiaga, Madariaga, Latxaga eta PPko Calvoren abstentzioa.

ERABAKI DU:

LEHENENGOA: ASCOBI-BIEBA, Bizkaiko Etxegile Sustatzaileen Bazkunaren izenean aurkeztutako idazkian emandako arrazoiak kontuan har-

La Corporación por mayoría de dieciseis votos a favor de las Sras/Sres; Atxurra de EA, Silva y Rodriguez de EB-B-ARALAR, Castellet, Borobia, Hernandez y Saralegi de PSE-EE, Artetxe, Bilbao, Aurtenetxe, Gallastegi, Agirrebeitia, Chamizo, Gandiaga, Madariaga, Latxaga de EAJ-PNV, y una abstención de la Sra. Calvo del PP

. ACUERDA:

PRIMERO: Estimar los argumentos aducidos en el escrito presentado por la Asociación de Constructores y Promotores de Bizkaia-Bizkaiko Etxegile Sus-

tzea, eta ondorioz, Udaletxearen erreforma eta handitze lanen Proiektuari dagozkien obrak prozedura ireki bidez esleitzeko klausula administratibo berezien Plegua indargabetzea.

BIGARRENA: Klausula Administratibo Berezien Plegua onartzea, Udaletxearen erreforma eta handitze lanen Proiektuari dagozkien obrak prozedura itxi bidez esleitzeko.

HIRUGARRENA: Udaletxearen erreforma eta handitze lanen Proiektuari dagozkien obrak esleitzeko prozedura zabaltzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz. Horrela, iragarkia argitaratzen denetik 10 egun naturaleko epean, parte-hartze eskaerak aurkeztu ahalko dira.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, bukatutzat jo da bilera eguerdiko ordu biak eta hamar direnean. Idazkari naizen honek, akta hau egin eta bertako guztia EGIAZTATZEN DUT.

tatzaileen Bazkuna ASCOBI-BIEBA y en consecuencia, anular el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares para la adjudicación de las obras correspondientes del Proyecto de reforma y ampliación de la Casa Consistorial por procedimiento abierto.

SEGUNDO: Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas-Particulares para la adjudicación de las obras correspondientes del Proyecto de reforma y ampliación de la Casa Consistorial por procedimiento restringido.

TERCERO: Disponer la apertura del procedimiento de adjudicación de las obras correspondientes al Proyecto de reforma y ampliación del edificio de la Casa Consistorial mediante publicación del anuncio correspondiente en el Boletín Oficial de Bizkaia y perfil de contratante del Ayuntamiento, para que en el plazo de 10 días naturales a partir de la publicación del anuncio puedan presentarse las solicitudes de participación que se estime pertinentes.

Y no habiendo más asuntos que tratar se dio por finalizada la sesión, siendo las catorce horas y cincuenta minutos extendiéndose la presente acta de todo lo cual como Secretario CERTIFICO.